

Mermaid

Iker barandiaran

Iruña inguruko hirukote batek osatzen du proiektu bitxi bezain zoro hau. Kyuss-ekin liluratutako hiru lagun elkartu eta duela pare bat urte entsatzatzen hasi ziren. Taldekideen iraganeko ibilbidea ezagutuz gero —Jugos Lixiviados, Clamoxyl 500, Bluebus eta Starfuck—, ezin zen emaitza *stoner rock* deritzotenera bakarrik mugatu.

Rec.Orbital zigiluarekin *...from here to nowhere* izenpean kaleratu duten lana —ez du zerikusi handirik beren emanaldi bortitz eta astunekin—, oso interesgarria da, zuzenekoak baino askoz ugariagoa. Esan moduan, Kyussen tankerako taldeetatik harantzago doaz: «Taldea sortu genuenean, haiengan pentsatzen ari ginen, baina eboluzionatzeko gai izan gara. Kyussen ildoan sartuz gero, ezingo ginen hortik irten. 70eko hamarkadako eragin handia daukagu; rockarena oro har».

Esan beharra dago disko experimental hau beren kasa grabatu dutela, etxean bertan: «Oinarriak estudio batean grabatu ditugu, lau ordutan, eta beste guztia zortzi pistako mahai batean prestatu dugu. Asko ikasi dugu esperimentatuz, eta oso gustura gelditu gara emaitzarekin». CDak dituen hamar abestietan oso giro ezberdinak landu dituzte: *stoner-rock*-aren erritmo astunek leku nabarmena hartzen badute ere, psikodelia ukituak, jarrera errepikakorak, esperimentuak, osziladorearen erabilera... aurki daitezke nonahi. Ingeleseko hitzetan, adibidez, *Galdutako burmuina* edo *Nire esker bakarra drogatzat da* gisako esaldi eta esae-



Nafarrak ilargian

rak aurki daitezke. «Batek baino gehiagok esan digu diskoak urduri jartzen duela, eta ulertzen dugu, nolabait horixe baitzen helburua. Oso aldakorra da eta batzuetan deserosoa izan daiteke. Kyussekoek eta haien lagunek burututako *Dessert sessions*-etatik dator pixka bat ideia: gaizki jota dauden kantuak, soinu txarra, esperimentazioak... agian arriskutsua izan daiteke gurearen moduko talde ezezagun batek horrelako apustu inozoa egitea, baina tira».

Beraiek sortutako hitz eta giroek oso kutsu berezia dutelako, edota behin baino gehiagotan lotsagabeki drogak aipatzen dituztelako, batek baino gehiagok drogazale talde bat direla esan ohi du: «Abestiak egiteko orduan ez ditugu drogak erabiltzen. Guretzat drogak dibertitzeko dira, besterik gabe. Hala ere, ziur gaude inoiz drogatu ez den batek ez duela gure mu-

sika noizbait drogatu den batek bezain ondo ulertuko. Eskerrak gazteriaren % 90ek porroak erre, % 70ek tiroak sartu eta % 15ek mongiak jaten dituztela; bestela...»

Hitzak, taldekideek diotenez, batzuetan inozoke-riak dira, eta orokorrean interpretazio askea dute. Ez dute gai zehatzez hitz egiten; ez dira ez kontaketak ez egutegiak. Ideiak eta irudiak dira. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, ingelesa dute patroia eta ez dituzu hortik aterako: «Ingelese abestutako musika entzuten hazi gara. Gaztelaniaz abesten dutenetan oso gutxi ditugu atsegin. Horien hitzak ez zaizkigu gustatzen; esplizitoegiak dira. Azken batean, zer arraio, ingelesak askoz *feeling* gehiago dauka eta rock & rolla Amerika da».

Dagoeneko, Euskal Herrian ez ezik, Espainiako Estatuko hainbat lekutan aritu dira. Diskoa Locomotivek banatzen du estatuan, eta European Hollandako Firebirdek. Laster, bertsioez osatutako EP bat kaleratuko dute. Ea ordurako zuzenean ikusi dituzun.

Helbidea: Rec.Orbital. 43 posta kutxa, Zangoza, Nafarroa.

«Batek baino gehiagok esan digu diskoak urduri jartzen duela»

mikel lizarralde

Trans Am Washingongo taldea da, baina Chicagotik etorriko balitz ere, inor ez litzateke harrituko. 90eko hamarkadako bigarren bosturtean hiri horretan indartu den mugimendu alternatiborekin bat egiten du taldearen musikak; eta rockaren ohiko eskemetatik harantzago joateko ahalegina egin du hasiera-hasieratik. Tortoise, June of 44 eta post-rockaren beste apostolu batzuen multzoan sartu

izan dute hasieratik Trans Am, baina taldekideek beti azpimarratzen dute rock talde bat dela. Taldea sortu zutenean ere, hard rock taldekideekiko miresmena erakusten zuten: «AC/DC izugarriak dira, eta Black Sabbath, Deep Purple... jakina onartzen dudala hard rocka-

ren eragina gure musikan. Gainera, ez dakit zergatik ezin den, adibidez, Juan Atkinsekin konpartitu». Rock epikoa, drum'n'bassa, elektronika... Trans Amen abestiek ez dute mugarik, estiloari dagokionez behintzat.

John McEntirek (Tortoiseko kide eta Stereolaben

ekoizlea besteak beste) ekoi-tzi zuen taldearen lehendabiziko diskoa, *Trans Am* (95), baina *Surrender to the night* (97) izan zen musikazaleak txunditu zituen lana. Tortoiseren bidea segitzen zuen, baina dance elementu handiak erakusten zituen. Lan horrekin eman zen ezagutzera Trans Am unibertso alternatiboan,


eta harrezkeroztik beste disko pare bat argitaratu ditu hirukote estatu batuarrek: *The surveillance* (98), eta *Futureworld* kaleratu berria.

Azken lan honek, gainera, berrikuntza bat ekarri dio etengabeko bilakaeran dagoen taldeari. McEntirek ekoi-tzi du ostera ere, eta lehendabiziko aldiz, ahotsak sartu dituzte zenbait pasartetan. Horretaz gain, Fred Erskine

—June of 44— tronpetajole handiaren laguntza ere jaso dute.

Rocka ulertzeko beste era bat aurkeztu du Trans Am-ek, esperimentala bezain indartsua.

Rockaren ertzean



Trans Am

Getxoko Gwendoline aretoan
Ostiralean

Trans Am